

baserritarraik oso de AHT eta autopistarekin

-Arrasate bitartean Eibar-Gasteiz autopistako
ako AHT-ko desjabetzak ere hasi dituzte

as por el de la autopista, las personas s de Aretxabaleta y
ar-Gas- Arrasate afectadas por el proyecto han denun-
stura de ciado que sus alegaciones han sido dsoidas por
n el caso BIDEGI y la Diputación.



rketa arriskuen gaineko
erketa polemikoa

Eskoriatzako Kaltetuen Elkar-
ak joan den abenduaren 29an
mandako prentsaurrekoan, BI-
EGIK autopistan lurjausiak
gon daitezkeela aurreikusten di-
zuten azterketa teknikoak gut-
etsi dituela salatu zuen.

Geoteknien adituak diren ge-
ogiako izen handiko hiru dokto-
ek idatzitako txostenean, Maz-
nelako sarrerako terraplen
karagarria aztertu eta, hitzez
hitz, ondorengoa esaten dute:
"azaldutakoaren ondorioz, gure
ustez ez da gomendagarria disei-
natun den terraplina egitea,
egonkortasun gutxikoa delako eta
goitik behera etortzeko arrisku
handia duelako, eta horrek erre-
pideko galtzadetak bati behint-
zat eragingo lioke". Terraplen
honek lehentasunezko explotazio
batetako landa-lur izugarria oku-
tu eta gainera baserri ba-

m. eskasetara.

Nahiz eta azterketa honen
emaitza oso kontutan hartzekoa
izan BIDEGIko arduradunek gut-
xietsi egin dituzte zentzugabeki
teknikariak deskalifikatuz eta au-
rretik erabakitakoaren jarraitzea
pentsatu dute honek guztion se-
gurtasunerako izan ditzekeen kal-
teak kontutan hartu gabe.

AHTko desjabetzak atzera bota dituzte

Arrasate, Aramaio eta Esko-
riatzan AHTak kaltetutakoak el-
kartu egin dira, Sustapen Minis-
terioak hasi duen zundaketak
egiteko lurjabetzei aurre egiteko.
Prozesu honen hasieratik izan den
informazio falta salatzen duen
dokumentua sinatu dute kaltetu-
takoei. Salaketa honen aurrean,
Debagoienan izan diren ADIF
eta Sustapen Ministerioko ardu-
radunek eskatutako informazioa
ekartzea agindu dute eta desjabet-
zen prozesuko lehen pausua hile-

Iritsi da sagardo denboraldia

Como todos los años llega la época de la sidra. Este año se
han transformado siete mil toneladas, si bien sólo un 20% co-
rresponde a la producida en Gipuzkoa, en gran medida debi-
do a que no se valora realmente la manzana local

Urtero moduan iritsi da sa-
gardo berriaren garaia. Urta-
rrilaren 11ean Astigarragan
burutu zen SAGARDO BE-
RRIAREN EGUNA, bertan
urteko sagardo uztaren berri
eman zuten, azken urteen mo-
duan urteko uztari goratzarre
eginaz. Gure nekazal aginta-
riak ere ez ziren falta bertan,
eta hauek ere urtero moduan
sektorearenganako laguntza
eta eskuzabaltasuna azaldu
zuten. Sagasti pedagogiko ba-
ten inplantazioaren berri ere
eman zuten.

Aurtengo uztari dagokionez
7.000 tona inguru transforma-
tu dira. Hala ere azpimarratu
beharra dago bertako sagarra
%20 soilik izan dela. Lehorte-
aren eragina jo zuten produk-
zio jeitsieraren errudun, nahiz
eta, zenbait agintariren esane-
tan, iazko lehortearen eragi-
nak txikiak izan ziren nekaza-
ritzan.

Lehorte urteetan sagardo
ona, hori omen dio esaera za-
har batek. Hala ere urrun ge-
ratu dira esaera zahar hauek.
Sagastiak dituzten baserrita-
rrak geroz eta gutxiago diren
garai hauetan, sagardo pro-
dukzioak gora egiten du, kan-
poko sagarrarekin egindakoa
noski. Sagarraren prezioa
ezartzeko garaian baserritarrei
oztopo ugari jartzen zaie pre-
zio duin bat izan dezaten. Hitz
batean bertako sagarra ez da

baloratua izaten eta eragin na-
barmenak ikusten hasiak gara.
Arlo honi ez bazaio garrantzi
gehiago ematen, epe labur ba-
tean, bertako produkzioa ge-
roz eta urriagoa izango da. Eta
bertako sagarrarekin egindako
sagardoa agortzen joango da.

Iazko urteko Lurraren egu-
nean, sagarrondo batzuk alda-
tu genituen, egun honetako
ekimen gisara. Donostialdeko
2. zinturoiak nekazaritzarako
lurretan duten eragina salatze-
ko. Agintariak ordea entzun-
gor egiten die nekazaritzarako
lurrak babesteko eskariari.
Orduan ekintza sinboliko gisa
egin genuena egungo sagra-
rondoen egoerarekin alderatu
daiteke. Bertako sagarra oina-
rri duen sagardogintza bat be-
harrezkoa dugu, bertako sa-
gardoa edan nahi badugu.

Sagasti pedagogikoak soilik
gera ez daitezen Euskal He-
rrian, sagardogintzan partaide
garen guztiok ahalegin bere-
ziak egin beharko ditugu ber-
tako sagastiak babesteko.
Bestela, datorren urtean, le-
horterik ez bada, zein aitzakia
bilatuko dute agintariak port-
zentai eskas hori justifikatze-
ko?. Esaerak dioena egia ote
den frogatzeko modurik ez
dugu izango aurtun, ez bait
dakigu beste %80k lehorterik
jasan ote duen. Hala ere %20
horren omenez, TXOO-
OTXX!!! egin dezagun.

